



Euskara mitifikatu dugu, komunikatzeko balio duen hizkuntza ez balitz bezala”

YASMINE KHRIS MAANSRI
ITZULTZAILEA ETA KAZETARIA



Euskaraz gain, frantsesez, ingelesez, gaztelaniaz, portugesez eta galegoz egiteko gai da 24 urteko marseillarra (Frantzia). Urte eta erdian ikasitako euskarari esker kazetari lanetan ari da Iruñean. Nerabea zenean ingelesa menperatzea zen bere ametsa. Orain, Aljeriatik Frantziara migratutako gurasoek arabiera eta amazigera irakatsi ez izanaren pena du. Dena den, inoiz ez da beranduegi “arbasoen historia berridazteko”.

 MIKEL URABAIEN OTAMENDI

Oraingoz bederen, ez dio Afrika-ko hizkuntzak ikasteari ekin, baizik eta euskarari, amonaren jatorrizko hizkuntzari, alegia. Carmen Landa Garmendiak 1962an frankismotik ihes egin zuen 21 urterekin eta Aljerren jostintza izan zuen bizibide. 58 urte geroago amona-bilobak lehenengo aldiz euskaraz mintzatu ziren telefonoz. Amona harro dago bilobak familiaren historia josi duela. Hizkuntzaren jostun gazteak, berriz, haria eta jostorratza hartu eta euskal gizartearen batzen lagundu nahiko luke orain, edo behintzat, euskaraz biziz hitz-tun kopuruari bat gehitu. Ez da erronka makala, baina puntada arrakastatsua izan da: duela urte eta erdi iritsi zen Euskal Herrira eta *Ahotsa.info* eta *Hor-dago-El Salto*-n ari da kazetari lanetan. Amets amerikar madarikatua ordezkatu du eta orain euskaraz amesten hasi da.

Zein hizkuntza entzuten zen Marseillako zuen etxean?

Frantsesa gehienbat. Egia da nahasketa

berezia zegoela. Nire gurasoak arabieraz ere mintzaten dira eta beste senide batzuekin gaztelaniaz hitz egiten genuen.

Zer dela eta gaztelaniaz?

Nire lehengusinak Alacanten [Herrialde Katalanak] bizi zirelako. Hara joaten ginen udatan eta beraien hizkuntza ikasteko grina sortu zitzaidan.

Hainbat lekutan bizi izan zara. Bizilekuak hizkuntzaren arabera erabaki dituzu, alegia, bertako hizkuntzara ohitzea?

Bai, baina ñabardura batekin: ingelesa praktikatzera Eskoziara joan nintzen eta gaztelaniara ohitzea Salamancara; ondoren, Galizian, nire pentsamoldea pixka bat aldatu zen. Han gaztelania jakinik eroso bizitzeko aukera neukan; hala ere, joan aurretik galego eskolak jasotzeko izena eman nuen, argi neukalako hizkuntza txiki baten hiltunen errealitatea barrutik ezagutu nahi nuela.



AMONA-BILOBAK. "Carmen Landa Garmendia Yasmine Khri Maansriren amona da, usurbildarra. 1962an, frankismo betean alde egin zuen Aljeriara 21 urte zituela. Bilobak euskara ikasi duenez hizkuntza horretan telefonoz aritzeko aukera izan dute.

Katalanari eta euskarari heldu diezu geroztik. Zergatik hartu duzu hizkuntza minorizatuak ikasteko erabakia?

Bertako hizkuntzei ez ikusia egitea tokian tokiko errealitateari uko egitea delako. Gogoan dut 16 urterekin ingelese ondo ikastea zela benetan ilusioa egiten zidana, gaur egun gazte gehienei gertatzen zaien moduan. Politikariak horretaz aprobetxatzen dira ingelesezko PAI hezkuntza sistema kaskarra saltzeko eta euskara zokoratzeko.

Horretaz demagogia egin ahal izateko herritarren onespena behar da. Zergatik onartzen dugu hori guztia?

AEBetako bizimoduaren ametsa buruan sarturik dugulako. Gainera, atzerrira bidaiatu nahi dugu, baina tokiarekin gehiegizko harremana izan gabe. Horregatik daude hegaldiak geroz eta merkeago.

Zuk pentsamolde horri buelta eman diozu. Noiz piztu zitzaizun bidaiatu eta beste hizkuntzak ezagutzeko interesa?

20 urte nituenean eta komunikabideen bitartez Kataluniako prozesu independentistak hizkuntzarekin zeukan lotura ikusi nuenean. Frantziako Estatuak hizkuntza ofizial bakarra dauka, frantsesa; espainiarrak, aldiz, gaztelaniaz gain beste batzuk onartzen ditu. Desberdintasun horrek interesa piztu zidan.

Zertan datza diferentzia hori praktikan?

Hizkuntza administrazioan erabiltzeak gauza anitz aldatzen ditu. Bestela, hizkuntza ikusezin bihurtzen da eta gutxika galtzen doa. Argi ikusten da euskaldunak sekulako esfortzua egiten ari direla beraien hizkuntza zabaltzeko eta penagarria da erabaki politikoek gizar-tearen nahiari jarraipenik ez ematea. Dena den, oso agerikoak diren eskubide urraketez aparte, ofizialtasun ezak bizitzaren edozein xehetasunetan izan dezakeen eraginaz jabetzeko duela gutxi sare sozialetan ikusi nuen adibidea etorri zait burura: Pertsona batek konfinamenduan kalera atera ahal izateko baimena euskaraz idatzita edukitzeko aukerarik ba al zegoen galdetu zuen eta idazle frantziar batek bere baimena latinez idatzirik izan nahi zuela erantzun zion...

Galdetzaileari iseka egiteko asmoz, alegia.

Noski! Gainera, erantzunak ikusita, ofizialtasun ezak mespretxua normalizatzea eragiten duela esango nuke.

Mespretxua, edo kasurik onenean, folklorea.

Ipar Euskal Herrian folklorea gauza orotan dago: arkitekturari, ikurretan... Esate baterako, duela gutxi Ezpeletan egon nintzen eta dena lauburuz beteta ikusi nuen. Hizkuntzarekin gauza bera gertatzen denez, euskara idealizatuta dagoela dirudi, baina instituzioetatik ez du inolako babesik jasotzen. Dena den, hein batean, Hego Euskal Herrian ere horixe bera gertatzen da.

Nola?

Denok ezagutzen dugu hainbeste zabaldu den euskal hitz politen jatorriaren inguruko gaztelaniazko bideoa. Ondo dago lehen pauso bezala euskara zabaltzeko, hau da, hasiera batean Espainiako Estatuko beste lekuetako bizilagunak gure hizkuntzara erakartzeko eta interesa pizteko. Baina bideoa hainbestetan errepikatzeak zera esan nahi du: euskara eremu sakratuan utzi dugula, eta hortaz, ukiezin bihurtu. Azken finean, mitifikatu dugu, komunikatzeko balio duen hizkuntza bizia ez balitz bezala. Horregatik, euskara gizar-tean jostea da euskaldunon ardura, ondoren kanpora zabaldu ahal izateko.

Ez al gara hizkuntzaren folklorizazio horren konplize bihurtzen mezu bera gaztelaniaz edo frantsesez eta ondoren euskaraz idazten dugunean, alderantziz edo hizkuntza bakarrean jarri ordez?

Ados nago. Arazoa da euskaraz ikusita-koan jendea mintzen dela; euskara hutsan badago ez dutelako ulertzen, eta euskara aurretik jarri bada inposaketa gora eta behera hasten dira.

Zer esanik ez Nafarroan...

Bai, eta ez bakarrik oso agerikoa denean, adibidez euskarafobia duten horien artean. *Ahotsa.info*-ko bideoez askotan jasotzen ditugu haserre dauden pertsonen komentarioak, zera esanez: "Ez dut ulertzen, jar ezazue gaztelaniaz". Baina ez al dituzte jadanik nahi bezain beste komunikabide gaztelaniaz?

Azpitulua: alde edo kontra?

Komunikazioaren munduan ukazina da publikoa kontuan hartu behar dela, baina komunikatzaile euskaldunon esku dago euskarari lehentasuna ematea edo gaztelaniaren bitartez jende gehiagorengana heltzen saiatzea. *Ahotsa.info*-n Nafarroa osoari zuzendu nahi gatzazkio, eta noski, honen inguruko eztabaida izan dugu.

Azkenean, batzuetan euskara eta beste batzuetan gaztelania erabiltzea erabaki zenuten.

Bai. Euskarazko bideoak gaztelaniara itzuliko bagenitu, alderantzizkoa ere egin beharko genuke. Baina, noski, Nafarroako euskaldun guztiek gaztelania jakin badakite, beraz, horrek ez dauka zentzurik. Kontua da guk uste dugula etorkizunean gaztelaniaz dakiten nafar

guztiek euskara jakin behar-ko luketela eta azpituak ez doaz norabide horretan. Hori da gure erronka. Azpituak eskatu baino gehiago exijitzen dituzten horiei esango nieke beste edozein komunikabidetara jotzeko, ez baikaude derrigortuta dena itzultzera.

Eskaintza ez da murrirtza, gainera.

Edukian hamaika aukera dago; ez, ordea, euskal munduan. ETB1 pizten dudanean saio batzuk lotsagarriak iruditzen zaizkit. Ez dut uste euskaldun guztion beharrak asetzen dituenik, inondik inora.

Adibiderik jar zenezake?

Koronabirusaren berri emate-rakoan, esate baterako. Lehenengo luze eta zabal EAeko egoerari buruz informatzen gaituzte; gero, Nafarroari buruz; eta, azkenik, astirik baldin badago, Ipar Euskal Herriari buruz labur-labur. Frantziako Gobernuak konfinamendua ezarri zuenean ere, *Teleberrian* hogeita minutu baino gehiago itxaron behar izan genuen. Argi eta garbi uzten du erabateko nazio ikuspun-tu falta.

Azkenaldian euskara batuaren eta euskalkien inguruko eztabaida zabaldu da.

Amonarekin euskaraz hitz egin nuen lehen aldia oso hunkigarria izan zen biontzat, eta bera oso harro dago nitaz. Niretzako zaila da Usurbilgo bere euskara itxia erabat ulertzea, baina elkarrekin mintza gaitezke. Ikaragarria iruditzen zait gaztetatik Aljerren bizi izanik ere, bere ama hizkuntza ederki gogoratzea. Gainera, frantsesa eta gaztelania menperatzen ditu eta arabieraz moldatzen da. Bestalde, pena ematen dit bere euskara mailaz gutxiagotasun konplexua duelako. Nire euskara berea baino askoz politagoa eta garbiagoa zela esan zidan.

Orain badirudi preseski batua dagoela gutxietsia.

Bai, sormen artifizial hutsa dela diote. Nire amona ez da konturatzen gaur egun



klorreak edo mitifikazioak ez digute ikaste prozesuan gaudenoi inolako onurarik egiten, eta askotan, euskaldunzahar gutxi batzuen jarrerak ere ez.

Zuzenketengatik?

Nolakoak diren. Zerbait gaizki esan badut zuzen nazazu eta eskertuko dizut, baina ez zaitetz purista izan.

Non dago muga?

Erdarakadatan. Batzuetan beharrezkoa da horiek onartzea hitzun berriek hizkuntza batetik bertzerara trantsizioa egin dezaten. Ez da hizkuntza pururik existitzen, hura bizi-rik baldin badago behintzat.

Zuk jada trantsizioa gaingaitu duzu.

Pasa den astean euskaraz amestu nuen! Ez nuen espero eta asko poztu ninduen. Horrek esan nahi du euskaraz pentsatzeko gai naizela.

Zein hizkuntzatan pentsatzen duzu normalean?

Frantsesez, baina egia da batzuetan gaztelaniazko esamoldeak sartzen ditudala, baita amarekin hitz egiterakoan ere.

Euskaran erabat murgilduta zaudela esan zenezake?

Bidean naiz, baina oraindik ez.

Zure burua euskara ikasleen eredutzat duzu?

Egia esateko goraipamenaz pixka bat nekatuta nago. Noski, pozik eta harro nago, baina uste dut nire kasua eredu gisa hartzea kaltegarria izan daitekeela. Izan ere, nire lanerako onuragarria izan da euskara ikastea eta halaxe izan beharko luke guztientzat. Zorritzarrez, orokorrean ez da horrela eta ahalegin handia egin behar da Iruñean bertan euskara ikasi ahal izateko. Gainera, tituluak ondo daude, baina euskaraz bizi nahi dugu eta oztopo gehiegi ditugu. Horregatik, beldurra ematen dit ez ote diegun gehiegi eskatuko euskara ikasten ari direnei ni eredutzat jarritz. Norbanakoen esperientzia ikaragarriak miretsi baino gehiago, Euskaraldia eta Errigora bezalako proiektu kolektiboak bultzatzeko batu behar ditugu indarrak. ●

“Batzuetan beharrezkoa da erdarakadak onartzea hitzun berriek hizkuntza batetik bertzerara trantsizioa egin dezaten”

bere euskalkiak nortasun handia daukela. Berak frankismo garaiko mesprexua jasan zuen, eta orain, ordea, euskal munduan batuarekiko gutxiespena zabaltzen ari da, baita beste hizkuntza askotan ere. Ukaezina da euskara batuaren beharra, euskalkiak babestea ezinbestekoa den bezalaxe. Horrelako liskarrek banatzen gaituzte, baita euskaldunberri eta euskaldunzahar kontzeptuek ere. Iruditzen zait euskaldunok eztabaidatzeko arazo handiagoak baditugula. Esan bezala, fol-